

## DESBERDINTASUNAREKIKO AHALMEN KRITIKOA ETA ALDAKETARAKO AHALMENA

### HAUR HEZKUNTZA



**Nafarroako  
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

### DATUAK BEREIZI: JARDUERAK ETA ELKARREKINTZAK

Haur Hezkuntzako ikastetxean hasten diren ikasleak gure abiapuntua dira. **Familia eta gizarte giro zehatzetako neska eta mutil zehatzak** dira. Inolaz ere ez dira neska eta mutilak modu generikoan edo abstraktuan, ezta ere "garbiak, zuriak". Gure ikastetxean goiz hasi arren, **bizipen zehatz batekin eta gizarte eta familia mentalitate batekin** datoz. Aldez aurreko baldintza hauek ezin dira alde batera utzi. Ezagutu egin behar ditugu, horiekin bat jardun ahal izateko. Horretarako nesken eta mutilen datuak aztertu eta bereizi behar ditugu.

### FAMILIATIK ETA GIZARTETIK HARTU DUTENA

Berdintasunerako hezkuntzari dagokionez, kontuan izan behar dugu **familiaren baitan neskak eta mutilak ezinbestean modu desberdinean hezten hasi direla** jaio aurretik ere, batzuetan eta besteendako oso desberdinak diren aldez aurreko itxaropen eta presaketarekin, eta jaiotzatik oso desberdin diren elkarrekintzekin. Gainera, gizarte ohitura eta elkarrekintzak bereizketa hori indartuz joan dira.

- ▶ Neskak eta mutilak eskolara iristen direnean, aldez aurreko egoera horretatik abiatzen dira eta, neurri handi batean, **barneratu dute dagoeneko modu desberdinean portatu behar direla neskak edo mutilak badira.**
- ▶ Bestalde, eskola prozesu guztian, **eskolaz kanpoko faktoreek** (familia, hedabideak eta gizarte konbentzioak) eragiten jarraituko dute gure ikasleengan, eskola berarengan eta haien irakasleengan, sistema androzentriko eta sexista betiketuzen saiatuz.

### HEZKUNTZA, ESKOLAREN ESKU-HARTZEA

Hori dela eta, gure eskolak ezin du alde batera utzi, hala nahi izan arren, familiaratik eta gizartetik bereganatutako hori, hots, **ikasleek ikastetxera egunero ekartzen duten "bizkar zorroa"**. Eskola guztiek, ikasleak gizarterartzeko toki pribilegiatuak diren neurrian eta egunero egiten duten eskola jarduerari esker, bi norabide hauetako batean **eragiten dute nahitaez:**

- ▶ Edo ikasleen aldez aurreko ereduak alde batera utzi edo indartzen dituzte.
- ▶ Edo aztertu eta aldatzen dituzte.

Hau da, bai **inplizituki eta bai esplizituki:**

- ▶ Edo genero eredu tradizionalak transmititzen eta indartzen dituzte.
- ▶ Edo modu kritikoan aztertzen dituzte, berdintasunezkoak diren eredu alternatiboak eskainiz.

### genero nortasuna

Eskolak paper garrantzitsua du genero nortasuna eskuratzeko prozesuan, eta dagoeneko Haur Hezkuntzatik elementu sexistak transmititu eta ugaltzen dira ondoko bitartez:

- **Materialak eta baliabideak:** jolasak, ipuinak, material didaktikoa eta metodologia.
- **Irakasleen esku-hartzea** neska eta mutilekin: genero maskulinoaren eta genero femeninoaren berezkitzat jotzen diren pentsatzeko eta jarduteko moduak transmitituz.

### dikotomia sexistak

Horiekin dikotomia kontrajarriak ugaltzen eta indartzen dira (**neska-mutila, indartsu-ahula, aktibitate-pasibitatea, urdina-arrosa, beldurra-ausardia, instintua-ahalmen sortzailea...**). Dikotomia horiek gizartean ezarri eta ikasten diren sinesmenen eta irudipenen isla dira eta, orokorrean, modu inkontziente batez bizi, transmititu eta irakatsi egiten dira.

### elkarrekintzak

Irakasleen itxaropenak, familienak bezala, zeharo eragiten diote, goiz-goizetik hasita, neska eta mutilekiko elkarrekintzari.

Izatez, ikerketa ugari berresten dute pertsona **helduek haurtxo baten aurrean duten portaera errotik aldatzen dela bere generoa maskulinoa edo femeninoa bada:** hitz egiteko eta tratatzeko modua, janzteko eta mugitzeko moduak, objektuak eta jostailuak ematea, etab.

## hizketa

- **Hizketa:** asko eta oso goiz sexu femeninoko haurtxoei, batez ere.
- **Bokalizazioa:** neskekin mutilekin baino gehiagotan egiten da: hitz egin, abestu, silabak eta soinuak errepikatu...
- **Intonazioa:** neskekin leunago eta zorrotzago, mutilekin indartsuago eta baxuago.
- **Hitzak, ezizenak...:** orokorrean, amultsuagoak eta arduratsuenak neskekiko (polita, printzesa, panpina...), zakarragoak eta baldarragoak mutilekiko (sendokote, ganberro, tripaundi...).

## mugimendua

- Gehiago manipulatu dira fisikoki **mutikoak** neskatoak baino. Horrek eragiten du mutilak aktiboagoak izatea, bere kabuz espazioa aurkitzea, independenteago izatea.
- **Neskek** kontu handiagoz manipulatu dira, atxiki egiten zaie, babestu eta fereka gehiago egiten zaizkie, pasibotasunera eta mendetasunera bultzatzen zaie.

## baimenak eta mugak

- Permisibitatea: neskei gehiago uzten zaie **negar** egiten mutili baino, mutilen kasuan lehenago esku-hartzen baita (emozioen kontrolaren eskakizun atalasea desberdina da).
- **Higiene** gaietan, mutili gehiago uzten zaie zikintzen eta beren arroparen egoerari arreta txikiago eskaintzen zaio ("normala da, asko mugitzen dira eta saltseroagoak dira"), baina ez hainbeste neskei, garbiago egon behar dute, beren arropa, orrazkera, itxura fisikoa, etab. gehiago zainduz.
- **Agresibitatea**, borrokak, hozkadak... "normalagotzat" jotzen dira mutiletan nesketan baino ("noski, mutilak neskek baino ipurtarinagoak, bihurriagoak eta liskarzaleagoak dira")

## jolasak eta jostailuak

Etxearekin eta zainketaarekin orokorrean (haurrena, beste pertsonena, etxeko lanak...) eta edertasunarekin zerikusia dutenak **neskendako**. Eta aire zabalerekin eta lehiakortasunarekin, makinarekin, indarrarekin, borrokarrekin, kirolarekin, autoekin eta abarrek zerikusia dutenak **mutilendako**.

## HEZKIDETZAREN ESKU-HARTZERIK GABE, BERDINTASUNIK EZ

Nagusi diren genero estereotipoen transmisioa eta indartzea modu kontziente eta esplizituan ematen ahal da; jokaera hori gaur egun ohikoa ez bada ere. Gure ikastetxeetan, "**gauzen ibilbide naturala**" jarraitzen uzten duten ustezko neutraltasun bat hartzea. Azkeneko kasu honetan, ikasleek eskolan ikasten dute sexu bakoitzari dagokion rola antzezten eta portaera egokia adierazten, gizartean nagusi diren arauekin bat.

Ezaugarri hauek dituen eskola esparru batean, ondokoetara zuzentzen diren **mutilen portaerak** sustatu eta positibotzat eta "**normaltzat**" hartzen dira:

- ▶ Independentzia.
- ▶ Erabakiak hartzea.
- ▶ Autonomia.
- ▶ Agresibitatea.
- ▶ Indarra.
- ▶ Nagusitasuna.
- ▶ Sinpletasuna.

Bere sexurako desegokitza jotzen dira ahultasuna, pasibitatea eta sentiberatasuna. Portaera horiek **egokiago eta "normalago"** jotzen dira **neskendako**; neskek ondokoengatik indartu eta baloratzen dituzte:

- ▶ Obedientzia, arauak onartzea.
- ▶ Samurtasuna, beren afektibitatea.
- ▶ Mendetasuna.

Neskek portaera autonomoagoak eta ausartagoak badituzte, hau da, "mutilen" portaerak badituzte, hori aurpegiratu egiten zaie. Eta sarritan gutxietsiak izaten dira harremani, egoerei eta gatazkei aurre egitean darabilten konplexutasun emozional eta afektiboa dela eta; aipatu egoera horietan inkontzienteki orokortu egiten da gizonezkoen sinpletasuna.

## HEZKIDETZAREN ESKU-HARTZEAREKIN, BERDINTASUNA

Eskolak bideak ditu sexu arrazoengatik bereizkeriari **aurre egiteko modu aktiboan**, helburu horretara bideratutako neurriak hartzen badira eta familia-eskola harremana lankidetzan eta erantzukizun partekatua ezartzen bada.

Hezkidetzaren arrakasta Haur Hezkuntzan, ondoko mende egonen da:

- ▶ Indarrean jarriko dugun esku-hartze eredua, neska eta mutilen autonomia mailari eta bizitza esparru desberdinetan esperimintatzeari dagokionez (txoko, jarduera eta abarren bidez).
- ▶ Irakasleek neska eta mutil bakoitzarekin eta bi kolektibo horiekin ezartzen dituen berdintasuneko harreman eta elkarrekintzak.
- ▶ Neska eta mutili berdintasunetik eskaintzen dizkiegun ikasketa eta garapen osorako benetako aukerak.
- ▶ Familien lankidetzan, parte hartzea eta konpromisoa. Familiei horretarako tarteak, denbora eta aukerak eskaini beharko zaizkie.

Horrekin guztiarekin, gizarteak transmititutako genero eredu tradizionalen alternatiboak eta desberdinak diren ereduak eraikitzen laguntzen ahal dugu, neska eta mutilendako garapen osorako ereduak.



## DATUAK BEREIZI: JARDUERAK ETA ELKARRERAGINAK

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

IRAKASLEEN BEHAKETA  
ELKARRERAGINAK ETA JARDUERAK

hezkidetza|antzen

IRAKASLEEN ELKARRERAGINAK GELAN	% neskak	% mutilak	% biak
Egunaren hasieran, harrera eta ongietorria egiten diot...			
Jarduera kolektiboetan talde osoari zuzentzean, begiratzen diot...			
Taldean eta jendaurrean pertsona bati zuzentzean, izaten da...			
Bereizirik eta modu pribatuan pertsona bati zuzentzean, izaten da...			
Taldeari oharrak, enkarguak... emateko ardurak egokitzen dizkiot...			
Gela garbitu, ordenatu... jasotzeko ardurak egokitzen dizkiot...			
Gelatik kanpoko oharrak, enkarguak... ematea eskatzen diet...			
Taldean eta jendaurrean hitzegin edo ipuinak kontatzeko, ateratzen dut...			
Gelan jarduerak egiteko, modu pertsonalizatuan laguntzen dut...			
Gelatik kanpoko jarduerak egiteko, modu pertsonalizatuan laguntzen dut...			
Txokoetan eta lan indibidualen, zaintzen dut batez ere...			
Psikomotrizitatean, jolas librean... zaintzen dut batez ere...			
Patioan, jangelan, gunekomunetan... zaintzen dut batez ere...			
Gelan ohartarazi, jarrerak zuzendu... egiten diet batez ere...			
Gelatik kanpo ohartarazi, jarrerak zuzendu... egiten diet batez ere...			
Jarduerak eta errefortzu taldeak bidaltzen dizkiet...			
Ohar eta abisuak ...-en familiarekin bidaltzen dizkiot			
Bilerak eta elkarrizketak ...-en familiarekin izaten ditut			
Irakasleak, zuzendariak, CAP etabarrekin bilerak, ...-ei buruz izaten ditut			

## IRAKASLEEN BEHAKETA: ELKARRERAGINAK ETA JARDUERAK

- ▶ Zeintzuk dira batez ere **neskekin** garatzen ditudan hiru elkarreraginak? Eta batez ere **mutilekin** garatzen ditudan hiruak?
- ▶ **Lotzen al dira** tradizionalki identitate femenino eta maskulinoei egokitu eta emakume-neska eta gizon-mutilei aplikatzen zaizkien aurrez aurreko **dikotomia eta itxaropenekin**?
- ▶ Elkarreragin ezberdin hauek irauten badute, desabantaila edo ondorioren bat izan dezakete neskenentzat? Eta mutileentzat?
- ▶ Saihestezina al da guzti hau? Ezberdintasun hauek orekatzeko, esku hartu dezaket moduren batean?
- ▶ Neskekiko nire elkarreraginak orekatzen laguntzeko jarduerak programatu ditzaket? Eta nesken garapen pertsonaleko arlo zehatz hori hobeto garatzeko jarduerak?
- ▶ Eta mutilen kasuan, beraiekiko nire elkarreraginak orekatzen laguntzeko eta beren garapen pertsonaleko arlo zehatz hori hobeto garatzeko jarduerak programatu ditzaket?



## DATUAK BEREIZI: JARDUERAK ETA ELKARRERAGINAK

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

IRAKASLEEN BEHAKETA  
ELKARRERAGINAK ETA JARDUERAK

hezkidetza|antzen

erabileraren maiztasuna		EKIPAMENDUA, MATERIALAK ETA JARDUERAK	zeinek erabilia	
altua	bajua	ZEINEK ERABILTZEN DU ZER	% neska	% mutilak
		Puzzleak, ahokatzekoak, pilagarriak, harian sartzekoak...		
		Mutil panpinak, pelutxeak...		
		Neska panpinak eta bere osagarriak, jantziak...		
		Mailu, alikate, bihurkin... motako tresnak		
		Ibilgailuak, tiki-takak, trizikloak, patineteak, patinak...		
		Baloiak, pilotak, erraketak, palak, stick-ak...		
		Konoak, barrak, kuboak, blokeak...		
		Sokak, uztaiak, tunelak, zankoak, baldosak...		
		Muralak, txartelak, ipuinak, liburuak, aldizkariak...		
		Ordenagailua, konsolak, wi-ak, proiektoreak...		
		Sukaldea, lapikoak, baxera, jostailuzko elikagaiak...		
		Garbigailua, jantziak, plantxa, arropa zabaltzekoa...		
		Erratza, fregona, xurgagailua...		
		Telefonoa, mugikorra, ordenagailua, faxes...		
		Guraizeak, puntzoiak, pilagarriak...		
		Kutxa erregistratzailea, kalkulagailua, saskia, karroa...		
		Mediku maleta, estetoskopioa, termometroa...		
		Musika ekipoa, magnetofonoa, cd-a, dvd-a...		
		Musika tresnak, perkutsioa...		
		Pintzelak, kabailleteak, margoa, klariona...		
		Mantak, kojina, koltxonetak, aulkiak...		

## IRAKASLEEN BEHAKETA: ELKARRERAGINAK ETA JARDUERAK

- ▶ Zeintzuk dira **gehien** erabiltzen diren bost materialak? Zeintzuk dira **gutxien** erabiltzen diren bostak?
- ▶ Ikasleek **garapen arloei** dagokienean, zeintzuk **irudikatzen** dira **hobekien**? Zeintzuk **okerren**? Tradizionalki gizonenak eta emakumeenak, aurrez aurre? Zerbait egokitu behar al dut? Zein zentzutan?
- ▶ Zeintzuk dira neskek **gehien erabiltzen** dituzten bost materialak? Eta mutilek? Erabileraren maiztasun handiagoko edo bajuagokoekin bat al datoz?
- ▶ Materialen erabilera eta horri dagozkion neska-mutilen jarduera guztiak adina aberatsak, anitzak eta osatuak dira haien **autonomia eta garapen pertsonalerako** (bizitzaren arlo guztietarako)?

HH-3

DESBERDINTASUNAREKIKO AHALMEN KRITIKOA  
ETA ALDAKETARAKO AHALMENA

MUNDUA. NIRE MUNDUA.  
BALIABIDE FAMILIARRAK ETA SOZIALAK

NIRE FAMILIA, ZEINEK EGITEN DU ZER







Nafarroako  
Gobernua

Hezkuntza  
2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

**MARRAZKIA** ▶ Zure familiaren marrazki bat egin ondorengo koadroan eta lerroen bidez lotu pertsona bakoitzak egiten dituen zereginak, goikaldean eta behekaldean azaltzen diren irudiekin.



## MARRAZKIAK AURKEZTU ETA KOMENTATU

- ▶ Badago gehien bat emakumeek burutzen duten zereginik? Zein? Gizonek egin dezakete? Zergatik ez dute gizonek egiten? Egin lezakete gizonek?
- ▶ Eta badago gizonek egiten duten zereginik emakumeek egiten ez dutena? Zergatik? Beste moduren batean izan liteke? Egin lezakete emakumeek zeregin hori? Zergatik?
- ▶ Zeintzuk dira egin edota ikasi nahi zenituzkeen zereginak? Zergatik? Zeintzuk ez? Zergatik?



## MUNDUA. NIRE MUNDUA. FAMILIAREN AUKERAK




Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

## NIRE FAMILIA, ZEINEK EGIN DEZAKE ZER

hezkidetza **l**antzen

## PUZZLE TRUKAGARRIAK ▶ Koloreztatu marrazkiak eta moztu itzazu puntu-lerroetatik.



## MARRAZKIETAKO ZATIAK KONBINATU

- ▶ Piezak konbinatu, horietako hiru batu eta pertsonaia bat sortu. Aurkeztu sortutako pertsonaia, esan nola-koa den, nola izena duen, zer egiten duen, zer gustatzen zaion... ("... izena du, ... urte ditu, ... lan egiten du eta ... asko gustatzen zaio").
- ▶ Pieza guztiak ongi ahokatzen dira elkarren artean? Pertsonaia bakoitzak beste guztiak egiten dituzten gauzak egin ditzake? Pertsonaia bakoitzak gauza guztiak egin ditzake? Zergatik?
- ▶ Familia bateko kide guztiak zeregin berdinak izan ditzakete? Zergatik? Zer behar da horrela izateko?
- ▶ Hiru pertsonai hauekin konbinatzen den beste pertsonaia bat marraztu ezazu, aurreko hiruak elkarren artean konbinatu diren bezalaxe.



MUNDUA. NIRE MUNDUA. NIRE ESKOLA

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

NIRE ESKOLA, ZEINEK EGITEN DU ZER

hezkidetza **lantzen**

**LOTU** ▶ Lotu marren bitartez erdiko neska eta mutila inguruan dauden eskolako jolas edo jarduera ezberdinekin.



## OSATU LABURPEN-KOADRO BAT ARBELEAN ETA KOMENTATU EZAZUE

- ▶ Badago neskarekin lotu den objekturik (jarduerarik), mutilarekin lotu ez dena? Zergatik? Norbaitek eza-gutzen al du ekintza edo jolas hori egiten duen mutilik? Nola iritsi da ekintza hori egitera?
- ▶ Badago mutilarekin lotu den objekturik (jarduerarik), neskarekin lotu ez dena? Zergatik? Norbaitek eza-gutzen al du ekintza edo jolas hori egiten duen neskarekin? Ez? Baten bat egon liteke? Zergatik?



MUNDUA. NIRE MUNDUA. NIRE ESKOLA




Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

NIRE ESKOLA, ZEINEK EGIN DEZAKE ZER

hezkidetzalantzen

PUZZLE TRUKAGARRIAK ▶ Koloreztatu marrazkiak eta moztu itzazu puntu-lerroetatik.



## MARRAZKIETAKO ZATIAK KONBINATU

- ▶ Piezak konbinatu, horietako hiru batu eta pertsonaia bat sortu. Aurkeztu ezazu sortutako pertsonaia, esan ezazu nolakoa den, nola izena duen, zer egiten duen, zer gustatzen zaion... ("... izena du, ... urte ditu, ... lan egiten du eta ... asko gustatzen zaio").
- ▶ Pieza guztiak ongi ahokutzen dira elkarren artean? Pertsonaia bakoitzak beste guztiek duten zeregina izan dezake? Pertsonaia bakoitzak zeregin guztiak egin ditzake? Zergatik?
- ▶ Pertsona guztiek, neskek nahiz mutilek, objektu berdinak erabili, zeregin edo jarduera eta jolas berdinak egin ditzakete? Zergatik? Zer behar da hori horrela izateko?
- ▶ Aurreko hiru pertsonaiekin konbinatzen den beste pertsonaia bat marraztu, beste jolas batekin.